

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 168/2021 martxoaren 25. COVID-19ak 2021eko ekitaldian Arabako merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko eta COVID-19ak Arabako merkataritzan eta ostalaritzan sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen araudia

COVID-19 birusak eragindako pandemia egoerak eta osasun egoeraren ondorioz ezarritako alarma egoerak ondorio negatiboak izan dituzte Arabako Lurralde Historikoko merkataritzan eta ostalaritzan, eta enpresa eta autonomo horietako asko egoera ekonomiko zaillean daude.

Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak aurten laguntza deialdiak egin ditu merkataritza eta ostalaritza sektorerako, ebazpen hauen bidez:

– Foru Gobernu Kontseiluaren 62/2021 Erabakia, otsailaren 16koa, onesten duena Arabako ostalaritzaren sektoreari laguntzeko ezohiko laguntzen deialdia. Deialdi hori ostalaritza sektoreari zuzenduta dago soilik, hipoteken, alokairuen, autonomoen kuoten, horniduren eta aholkularitza gastuen gastuak finantzatzeko.

– Foru Gobernu Kontseiluaren 84/2021 Erabakia, martxoaren 2koa, onesten duena COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2021eko ekitaldian sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia. Deialdi hori merkataritza sektoreari zuzenduta dago soilik, eta honako gastu hauek finantzatzeko: hipotekak, alokairuak, autonomoen kuotak, osasun materialaren hornidurak, aholkularitza gastuak, publizitate gastuak eta elkarteetako afiliazio gastuak

– Gobernu Kontseiluaren 107/2021 Erabakia, martxoaren 9koa, onesten duena COVID-19ak Arabako merkataritza eta ostalaritza sektorean 2021eko ekitaldian sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdia. Deialdi honek merkataritza sektorea eta ostalaritza hartzen ditu onuradun gisa. Merkataritzarako diruz lagun daitezkeen inbertsioak dira segurtasun eta babes sanitarioarekin, hobekuntza teknologikoarekin eta lokalaren ekipamendu fisikoarekin zerikusia dutenak, eta ostalaritza sektorerako diruz lagun daitezkeen inbertsioak establezimenduen terrazekin zerikusia dutenak baino ez dira.

Martxoaren 2ko eta martxoaren 9ko Foru Gobernu Kontseiluen 84/2021 eta 107/2021 Erabakietan, merkataritza sektoreko onuradunen epigrafeak zehazten dira, eta bertan sartzen dira jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren lehenengo sekzioko 64. taldean alta emanda dauden establezimendu guztiak (establezimendu iraunkorretan egiten den elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza).

Ostalaritzako lokal batzuek, ostalaritzako lokal espezifikoez gain (671, 672, 673, 676 eta 969.1), 646 taldeko beste epigrafe batzuk ere badituzte (tabako laboreen eta erretzaileentzako gaien txikizkako merkataritza); izan ere, establezimendu horiek salmenta egiten dute denda osagarriaren bitartez (646.3 epigrafea), edo errekarigudun salmenta baimenaren erregimenean (646.4 epigrafea), edo makina automatikoen bidez, errekarigudun salmenta baimenaren erregimenean (646.5 epigrafea) edo tabako merkataritzaren bidez estanko bidezko salmentarik ez duten herrietan (646.6 epigrafea). Kasu horietan guztietan, jarduera nagusia ez da produktu mota horien merkataritza, tabako laboreen txikizkako saltokiek egiten duten bezala saltoki orokorretan, berezietan eta barnekoetan (646.1 epigrafea), saltoki orokorren luzapen iragankorretan (646.2 epigrafea), eta baimen berezien titular diren minusbaliatu fisikoek (646.7 epigrafea) eta erretzaileentzako gaien txikizkako saltokiek (646.8 epigrafea) egiten duten bezala.

Ondorioz, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak atera dituen laguntzak ahalik eta onuradun gehienengana irits daitezzen, beharrezkotzat jotzen da indarrean dagoen araudia interpretatzea, eta ebatzi da 646.3, 646.4, 646.5 eta 646.6 epigrafeak ez direla onuradun izango merkataritza establezimenduentzako laguntza espezifikotetan, epigrafe horiek establezimenduaren jarduera nagusiaren osagarriak eta subsidiarioak baitira (jatetxe, kafetegi, kafe eta taberna janaridunek eta janaririk gabekoek ematen duten zerbitzua). Gainera, ostalaritza establezimenduek laguntza espezifikoak dituzte antzeko gastuei aurre egiteko (Foru Gobernu Kontseiluaren 62/2021 Erabakia, otsailaren 16koa).

Bai COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdian (Foru Gobernu Kontseiluaren 84/2021 Erabakia, martxoaren 2koa), bai COVID-19ak Arabako merkataritzan eta ostalaritzan sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdian (Foru Gobernu Kontseiluaren 107/2021 Erabakia, martxoaren 9koa), 13. artikuluan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio laguntza deialdi horiek behar bezala garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 646.3, 646.4, 646.5 eta 646.6 epigrafeetan alta emanda dauden ostalaritza establezimenduak Arabako ostalaritzaren sektoreari laguntzeko ezohiko laguntzen deialdian soilik izan daitezke onuradun(Foru Gobernu Kontseiluaren 62/2021 Erabakia, otsailaren 16koa), eta ezin izango dituzte COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko ezohiko laguntza deialdiko (Foru Gobernu Kontseiluaren 84/2021 Erabakia, martxoaren 2koa) laguntzak eskuratu.

Bigarrena. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 646.3, 646.4, 646.5 eta 646.6 epigrafeetan alta emanda dauden ostalaritza establezimenduak COVID-19ak Arabako merkataritzan eta ostalaritzan sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdiko (Foru Gobernu Kontseiluaren 107/2021 Erabakia, martxoaren 9koa) 3.3 atalean adierazitako ostalaritza sektorearen atal espezifikoa soilik izan daitezke onuradun.

Hirugarrena. Bi kasuetan, interpretazio horren oinarria da epigrafe horiek establezimenduaren jarduera nagusiaren osagarriak eta subsidiarioak direla (jatetxe, kafetegi, kafe eta taberna janaridunek eta janaririk gabekoek ematen duten zerbitzua), eta gastuak ostalaritza sektorerako ezohiko laguntzetan jasotakoan antzekoak direla (otsailaren 16ko 62/2021 Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakia).

Vitoria-Gasteiz, 2021ko martxoaren 25a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES